



TXOLINTXU ETA NEKANETXU

Liburu hau
Euskal Jaurlaritzako
Hezkuntza Sailak onartu dau
1983ko apirilaren 13an

TXOLINTXU
eta
NEKANETXU

BIBIÑE PUJANA
LUIS CARLOS ABEAL

Eragileak: Fermin eta Juan Mari Iraolagoitia

Egilea: Bibiñe Pujana eta L. C. Abeal

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Depósito Legal: BI-848-83

Inprimaketa: Igarri, S. C. L., Deusto-Bilbao

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal


TXOLINTXU eta OTSOA

Bibiñe Pujana, L. C. Abealen TXOLINTXU eta OTSOA Eubako
Lauaxeta ikastolako 1982ko Ipuin Lehiaketan saritua izan zan.

Behinola, Gorbeipeko baserri baten sendi polit bat bizi zan; Aita Praisko, Mainton ama eta bi umetxo: Bata Antolin —etxean Txolintxu deitzen eutsien— eta bestea Nekanetxo.

Aita ikazgina zan eta asteko egun gehienak basoan igaroten ebazan. Amak, barriz, baserriko lanak egiten ebazan. Umetxoak ere, ahal eben neurrian laguntzen eutsien.

Txolintxu txori zalea zan eta libre eukazan ordu guztiak txori habi topatzen emoten ebazan. Baekian berak, bai, zelakoak ziran txindorraren edo birigarroaren arrautzak...



Egun baten, habi bila joan eta joan egin zan, konturatu barik gaua gainean egoala, eta halako batean, kukuaren eguneko azken agurra entzun eban.

—Ene! Non nago?

Erantzunak, berriro ere «ku ku - ku ku», kukuaren hotsa.

Mutila ez zan bapere bildurtia eta bere artean inoan:

—Gorbeipeko haitzen baten ondoan nago bai eta, zelan edo halan, hemen igaroko dot gaua.

Bere ama estututa egongo zala ere burura etorri jakon, baina hain egoan ilun gau horretan!, ezin ezer egin...



JESSE-83

Haitzpe baten sartu eta biribil-biribil eginda gelditu zan,
begi bata zabalik eta bestea itxita eukazala.

Halako baten, oihu haundi bat entzun eban:

—Auuuuuuuuuuuu!

Bera ixilik.


Handik lasterrera, orain handiagoa.

—Auuuuuuuuuuuu!



Zutundu zan berealaxe eta, oihu hori zer zan edo nondik etorren jakiteko, haitz gainera igon eban. Baina zutunik egoan bitartean ez zan ezer entzuten.

—Ze arraio! esan eban. Hemen gitxienez, gitxienez... Anbotoko Señorea dago. Or konpon!, eta barrero etzun zan.



JESSE-83

Bost minutu ez eban egingo etzunda, barriro lehengo oihu bardina, baina orain hurrago.

Ixilik egon ezin eta bera ere oihu berbera egiten hasi zan. Halan egon ziran une batean:

—Batak, auuuuuuuuuuu.

—Eta besteak ere, auuuuuuuuuuu.

Azkenean, iluntasunaren erdian, gauza baltz bat agertu zan. Bildurra kolkoan sartu, eskuetan makila —badaezpada— prest ipini eta bere arterako esan eban:

—Bakean bazatoz ondo hartuko zaitut, baina... ai txarke-
riren bat zure buruan badago...



Hurreratu eta PLAUST!, bere oinetan jausi jakon. Zer zan?
Ule baltzeko otsokume zauritua, erdi-hilik.

Bere burruz baltz zaharra bizkor-bizkor kendu eta gainetik
ipini eutson. Gero, txu apur bat eta sudur zapi urdinaz bere hanka
zauritua garbitu eutson. Eta azkenez abesti polit bat abestu
eutson:

Otsoa nire otsotxo
berotu zure muzturtxoa
Gorbeipean gagoz biok
zabaldu zure begiok.



Abestia entzunagaz batera, begiak zabaldu eta Txolintxuri eskuak lastantzen hasi jakon. Azkenean, olgetan hainbat denpora egin eta gero, loak hartu ebazan.

Eguzkia Gorbei tontorretik urteten hasi zanean, Txolintxuren begi dirdiratsuak argiz bete ziran eta, bapatean, zutundu zan. Otsotxoa ikusi eta... etxean ez egoala konturatu zan. Gero haitz gainera igon eban, non egoan jakiteko.




JESSE-83

—Ene!, Atso agurak dira ta... Orain badakit non nagoan: Ospelarri gainean. Txistu bat egin eta amak entzungo deust, eta lasaituko da.

Pentsautakoa egin eta halan jazo ere. Bereala, amak beste txistu bategaz erantzun eutson.

—Orain amak badaki non nagoan bai, eta otsokume honen ama bilatu behar dot.

Otsokumea lepoan hartu eta han joian pagadi, leizar eta beste mendiko zugaitz artetik eta, halako batean:



—Ene ama!, zelako zulo hundia!

Otsokumea lurrean itzi eta zulo horretan zer egoan ikustera joan zan eta...

—Ene bada!

Han barruan otso ama hilda egoan, karkabara jausi eta bertan hilda.

—Orain nago ni ona..., orain otsokume hau etxera eroan beharko dot derigorrez, eta..., eta pentsatu eta egin.

Eguerdiko hamabi barrietaryako heldu ziran baserrira Txo-
lintxu eta otsokumea.



Ama eta Nekane alaitu ziran, batez ere Nekanetxo.


—Zer izen ipiniko deusagu, Txolintxu?

—Ba... Aginandi, edo... Belarrioker.

— Ez, ez, horreik ez.

—Berez agertutakoa da bai, eta BEREZ izango da.

Berez gelditu jakon izentzat eta etxeko bezela gelditu zan. Egunero Txolintxu eta Nekanetxogaz olgutzen eban, txio-txioka, sakaka eta beste jolas askotan.




Sarritan, txoriak uxatuten eutsozan Txolintxuri, baina hain polita zan... beti parkatu behar.

Egunak joan, egunak etorri otsoa haundia egin zan eta haurtxoak ere bai.

Praisku eta Mainton, atsoaguretuta, sutondo baztarrean egoten ziran, artoak garandu, goruetan etab.

Txolintxu, aitaren lana jarraitu behar ebala ta, ikazgin egin zan.



Egun baten, basoan egoala, haize bolada haundi bat urten eta zugaitz haundi bat gainera jausi jakon.

Bera bakarrik egoan, beno, bakarrik ez han egoan Berez ere.

«Berez» oihuka hasi zan eta han etorri ziran bere osaba, izeko... eta sendi guztia. Danen artean zugaitz hori gaintetik kendu eutsien eta Txolintxuk, pozaren pozez, Zerura begitu ebanean, lainoetan idatzita, hauxe irakurri eban:

ATZO ZUK, GAUR NIK
ONDO EGINAK
EZ DAUKA ZIGORRIK

ATZO, ZUK SAUR NIK
ONDO EGINAK EZ DAUKA
ZIGORRIK



NEKANETXUREN IRRIBARREA

**BIBIÑE PUJANA
LUIS CARLOS ABEAL**

Nekantxo, Txolintxuren arreba bakarra neskato polit eta oso alai zan.

Bere larrosa koloreko ezpanak, beti irribarreka egozan.

Baina... bai, irribarre polit honek ahalmen handiak eukazan.


Aberetxoak, hori ondotxo ekien eta beronengana etortzen ziran zeozer behar izaten ebenean.



Egun baten, oilar koitaduari gauza tristea jazo jakon.

Egunsentia zala eta, ota puntatik kukurrukuka hasi zanean, bere eztarritik ixiltasunak bakarrik urtetan eutson.

Aleginak egitea alperrekoa zan. Ez kukurruku, ez kakaraka, ago haretatik ezerk ez eban urtetan.



JESSE-83


—Konponduko dot, esan eban bere arterako.

Lumak astin-astin egin, gangarra dotore-dotore ipini eta jatsi zan otatik.

Artez eta txairo joian gure kukurrukua, Nekanetxoren lei-hoperantz.

Bera bakarrik ez «zala gauza» ezer egiteko bertara heldu arte ez zan konturatu.


Leioa oso urrin gelditzen jakon, ta Nekanetxo lo egoan (ez, ba, zelan egongo zan ba? kukurruku entzun ezik?).



JESSE-83

—Oilo danak ekarri beharko dodaz, pentsau eban oilarrak,
eta oilotegirantz joan zan.


Oiloak, oilarrak zeozer behar ebala laster konturatu ziran
eta, atzetik jarraitu eutsien.



JESSE-83

Leihopera heldu ziranean, oilo batak bestearen ganera igon eban, azkenengo Nekanetxoren leiho aurrean, gure kukurrukua.

Nekanetxo lo gogorrean egoan, baina ...halako baten «argi kanpaiak» jotzen hasi ziran, begiak zabaldu eta nagiak ataratzen hasi zan.




Leihora begiratu eta, oilarra bertan ikusi ebanean galdetu
eutson.

—Egunon, baina... gaur ez dozu abestu ezta?


Oilarrak, erantzuna ezin emon.

—A, badakit, zeure abots eder horregaz arrotuta egon zara
bai... eta zigortu zaitue ezta oilartxo?



Oilarra «negar anpoluak» dariola hasi zan eta, Nekanetxok, damututa egoala igarri eutsonean, irribarre goxo bat egin eutson eta... bat batean kukurruku eta kukurruku inoiz baino gogorrago hasi zan.

—Orraitino, gaur oilarra baino, eguzkia eta kanpaijoilea bizkorrago ibili dira, inoan bere arterako Nekanetxoren aitak.



JESSE-83

Nekanetxo, musturtxoa garbitu ebanean, gosaltzen joan zan.

—Ama, burruntzian erreta, lukainkea jango dot e?

—Bai, eta gainean «arto-sopak».



Gozaltzen amaitu ebanagaz batera, bere ardurapean eukazan aberetxoak zaintzen hasi zan.

—Zuei txitetxoai, orea.

—Untzitxoai, barriz bedarra.

—Txarritxoari, anabakak.

—Oilotxoai, arto eta gari garauak.

—Txakurrei, ondakinak.

—Eta katuari, kortako kantineko «esne-epel» batu barria.



JESSE-83

Behar honeek egin eta eskolarantz joan zan.

Bidean zehar abestuten joian, lora polit batzuk batuaz eta... halako batean, erdi hilik egoan sator bat aurkitu eban.

—Sator koitadua! gaixorik dago, irribarreagaz osatu behar-ko dot.

Satorra, eskuetan hartu eban eta bere ezpanetarantz begira ipini, baina...



JESSE
83

—Ai ene, ezin dot ezer egin. Sator hau ere, itsua da.

Bedar sikuz habia egin, laztandu eta bertan itzi eban.

Eskolatik urten ebanean, barrero lehengo lekura bizkor etorri
zan, baina ordurako satorra hilda egoan.


Polito polito lurperatu eban eta haltz baten enborragaz
kurutze polit bat egin eutson.



JESSE-83


Handik urte batzutara, Nekanetxo gaixotu egin zan. «Bulerretikoa» deritxon gaixo oso txarra eukan.

Osagileari deitu eutsien baina... alperrik. Egunetik egunera txarrago egoan.



Satorra lurperatu eban tokian, lora txiki polit batzuk urteten ebela burura etorri jakon, eta, lora horreen saldea ekartzeko agindu eutson bere amari.

Edan ebanagaz batera, gaixo txar hori hondatu jakon eta, bertso hau asmatu eban:



JESSE-83

SATORRA GURA EBAN
JANGOIKOAK ZERUAN
NEKANETXO BEHAR DA
ORAINDIK LURREAN.



UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Felix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUAMETS, Juan txu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Felix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Felix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramon Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria

